

FAMILIAK ERE KONTATZEN DU

Etxean irakurtzeko gogoa pizteko 12 urrats



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAIA



Testu, marrazki eta diseinua

BELÉN LUCAS

Koordinazioa

EUSKO JAURLARITZA
Liburutegi Zerbitzua



FAMILIAK ERE KONTATZEN DU

Etxean irakurtzeko gogoaz pizteko 12 urrats



IRAKURRI

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuak Gida hau argitaratzeko asmoa izan da gurasoei gomendio lagungarri batzuk eskaintzea haurrak etxean irakurtzen anima daitezen. Gida hau familiei eskaintzen zaie **IRAKURRI 2007** liburutegi-zerbitzuak hedatzeko kanpainaren barruan. Gidaren helburua zera da: etxeko girotik hasita, haurrak liburu, irakurketa eta liburutegira hurbiltzea.

GAIAK

Orri.

- FAMILIA ETA IRAKURKETA 6
- LIBURUEN ONURAK 8
- HAUR IRAKURLEAK 10
- IRAKURTZEKO GOGOAZ PIZTEA 12
- EGIN BEHARREKOAK 14
- IPUINAK NOLA KONTATU 16
- IRUDIAK 18
- NORI GALDETU 19
- LIBURUTEGIAN 20
- ZEIN LIBURU 21
- GOMENDATUTAKO ZENBAIT IPUIN 23
- WEB GIDA 27



1

FAMILIA ETA IRAKURKETA

Heziketa gaitan aitzindari ditugun zenbait herrialdek, irakurzaletasuna sustatzerakoan, ezinbestekotzat jotzen dute familia haurren irakurmena garatu ahal izateko. Seme-alabak hazteko eta hezteko hain garrantzi handikoa den garaian, liburuekiko eta irakurketarako gogoia piztu nahi bada, komenigarria da gurasoek ere ardura hori beren gain hartzea, eskola eta liburutegiekin batera.

Beste herrialdetan, irakurketa sustatzean, haurrengan irakurtzeko gogoia goiz pizteko indarrean jarritako programa batzuek familia behar-beharrezkoa jotzen dute. Halako irizpidea du, esaterako, Estatu Batuetan, Italian, Suedian, Erresuma Batuan eta, 2005etik, baita Katalunian ere garatzen ari diren IRAKURTZEKO JAIOAK deritzon programak.

Programa hauen emaitza ezin hobea da, izan ere, familia, eskola, liburutegia eta osasun zerbitzuak eginkizun berean uztartzea lortzen baitute, haurrak liburu eta irakurketara hurbiltzeko eginkizunean, alegia.

Gaur egun hiru, lau eta bost urteko haurren gurasoek arduraz zaintzen dute haien gorputz haziera, psikomotrizitate garapena eta ulermen, mintzamen eta adimen gaitasuna, haur hezkuntzako arduradunen zein pediatren laguntzaz eta eskura dituzten beste baliabideei esker. Begi bistakoa da atalok direla, osoan, haurraren izaera eta nortasuna egituratzen dutenak.

Baina nahiz eta haurren garapenaz jabetzeko inoiz baino informazio gehiago duten gurasook, zailtasun handiak dituzte zeregin horretan lan ordutegien eta bizimodu azkarregiaren eraginez. Irakurtzeko ohitura sortzeko garaian komenigarria dirudi, beraz, etxean nola irakurri asmatzea, helburua zein behar duen ohartzea eta onurak zeintzuk diren jabetzea.



2

LIBURUEN ONURAK

Haur baten hazkuntzan ez dira zalantzan jartzen zenbait eginbehar, ongi elikatzea adibidez. Hala, gure haurren askarian fruta sartzeraoan zein onura dituen dakigulako egiten dugu, pediateraren aholkuei jarraiki edota familiaren elikadura ohiturak halakoxeak zirelako haurra jaio aurretik ere.



Gure seme-alabari sagarra ematen diogunean badakigu bere bitaminak onak direla osasuntsu hazteko. Eta irakurtzen animatzen dugunean?

Liburuen bitaminak ezagutzen al ditugu?

Liburu batek:

Mintzamenaren garapena azkartzen du.

Irakurketa eta idazketa garairako laguntzen du.

Sormenerako bidea zabaltzen du.

Jolaserako adiskidea da.

Ingurua ezagutzeko era bat da.





3 HAUR IRAKURLEAK

Goiz irakurtzen hasitako hurrek eta irakurtzeko ohitura dutenek horrelako ohiturarik ez dutenek baino hizkera aberatsagoa izaten dute eta arinago ikasten dituzte ortografia eta gramatika arauak.

Irakurzaletasun horrek mintzatzen eta irakurtzen jarioa eta zuzentasuna ematen dizkie haurrei.

Buru azkarragoa dutela eta norberaren kultura aberasten dutela esan liteke. Ariketa horrek eskolako ikasketa maila ere hobetzen laguntzen die.

Haur irakurleaz zera esan genezake :

- Ikasle hobe del.
- Kontzentratzeko gaitasun handiagoa duela.
- Irakurritakoa gogoan hartzeko eta buruz ikasteko gaitasun handiagoa duela.
- Kontzeptuak arinago bereganatu eta ulertzen dituela.

Irakurketaren onurak eskolako ikasketa mailan bezala agertzen dira bizitzako beste zenbait alorretan ere. Liburu bidez zaletasunak topa ditzakete, hainbat pentsaera ezagutu, sentiberatasuna garatu, sormena suspertu eta abar.





4

IRAKURTZEKO GOGOIA PIZTEA

Irakurtzeak hurrei eragiten dizkien onuren zerrenda aipatu ondoren, irakurtzeko gogoia pizteak eta zeregin hori familian burutzeak duen garrantzia ulertzea ez da lan zaila.

Hiru urte inguruko haur gehientsuenei ezagun egiten zaizkie beren adinerako argitaratzen diren ipuinak, bai haurtzaindegi edo haur eskolatan dituztelako eta baita ere, beste panpina eta jostailu hezitzaileekin batera, ohiko opari direlako. Orokorki, beren orri-aldeetan kolore distiratsuak dituzte ipuinok, kartoi sendoetan inprimaturik daude eta haurrak oso erraz ezagutzen dituen irudiak agertzen dira bertan: animaliak, eguneroko gauzatxoak, umeak eta abar.

Hiru urtetik gorakoentzat, aldiz, Haur Hezkuntza garaian beraz, gozamenerako irudi eta koloreak izateaz gain ikasketaren protagonista ere bihurtzen dira ipuinak. Ipuinak irakurtzeak eta entzuteak hizkuntzarekiko gogo sortzen laguntzen baitio haurrari, ezagutzarako nahiz jolaserako bide bezala erabiltzen ere bai, eta esan nahiak, gogoak edota sentimenak adierazteko aukera eskaintzen dio.





5

EGIN BEHARREKOAK

Irakurtzeko ordua jarri: kontakizun baten inguruan egunero elkartzeko une benetan gozoa izan daiteke lo hartu aurretiko ordu erdia.

Elkarrekin irakurri: haurraren jakin-mina suspertzeko komenigarria da ipuinak irakurtzerakoan galderak egitea.

14 **Norberagandik ikasi:** pertsona nagusia liburua esku artean edota

egunkari nahiz aldizkariren bat irakurtzen ikusten badute beraiek ere irakurtzeko zaletasun handiagoa erakutsiko dute.

Liburutegitxoak jarri etxean: haurraren logelan liburuentzako apal bat jartzea oso egokia da; garrantzizko lekua izango da helduok balio berezia ematen dioguna, istorioen gordelekua eta ipuinak aukeratzeko tokia.

Aukera eman: liburutegia oso egokia da haurrak liburuen ikusmiran jardun dezaten. Liburuzainek adin bakoitzari dagokion irakurgai buruzko aholku eman dezaketen arren, haurrari berak aukeratzeko dituen ipuinak irakurri beharko litzaizkioke.

Berezitasuna eman: liburu-dendara joatea txango atsegina izan daiteke haurrentzat eta liburu bat erostea gertakizun liluragarri bihur daiteke. Txotxongiloak eta antzeko ikuskizunak ere istorio eta liburuetara hurbiltzeko aukera politak izan daitezke.





6


IPUINAK NOLA KONTATU

Gurasoek, eta baita haurra zaintzen duten gainontzekoek ere, sarritan erabili ohi dituzten trikimailuak lagungarri izan daitezke ipuinak kontatzean. Adibidez, puzetako koilara haurraren ahora bidean hegazkin bihurtzea.

Zenbait gomendio:

- Hasi aurretik irrika sortu, nahiz eta jadanik irakurritako ipuina izan.
- Pertsonaia bakoitzarentzako ahots ezberdinak erabili.
- Sentimendu ezberdinak adierazteko- alegia, ezustea, beldurra, poza eta abar- ahotsa egokitu.
- Orrialdea pasa aurretik jakin-mina sortu.
- Keinuak ere erabili, kontatzeko tresna gisa.
- Haurrak ere parte har dezan, galderak egin.
- Irudietako gauza txikiei arreta jarri.
- Norberaren aipamenekin osatu ipuina, testu edota irudiez haratago imajinatuz.





IRUDIAK

Haur aurre-irakurleentzako liburuetan zeresan berezia dute irudiek, testuaren gainetik. Garrantzizkoa da, beraz, honakoak jakitea:

- Testuak aditzera ematen duenari buruz mintzatzen da irudia, baita ez dioenari buruz ere.
- Irudiak marrazteko erabili diren era eta teknikei arreta jarritz haurraren gustuak zeintzuk diren jakin dezakegu: akuarela, gouache, tinta, koloretako arkatz eta argizariak, digitala, teknika nahasiak,...
- Testurik gabeko ipuina aitzaki ezin hobea da irudien gainean istorio bat asmatzeko.





8

NOBI GALDEU

Liburuzainek, irakasleek eta liburu saltzaileek badakite hauren adin bakoitzari zein ipuin mota dagokion. Lagungarri izan ditzakegu liburua maileguan hartzerakoan edota erosterakoan. Adinari dagozkion horien artean, ordea, haurrari berari aukeratzen utzi behar diogu erakargarrien gertatzen zaizkionak.

...




9

LIBURUTEGIAN

Familiantzako irakurketa gida lagungarriak argitaratzen dituzte sarritan liburutegietako haur sailek. Ipuinen izenak nahiz ipuin argitaratu berriak topa ditzakegu bertan, eta baita ere liburuak mailegatzeko eta erabiltzeko arauak. Liburutegian zuzen eta zintzo ibiltzeko arauok hurrek ere ezagutu ditzaten arduratu behar dira guraso edota pertsona nagusiak. Hala, irakurtzeko plazerarekin batera, liburutegiko beste erabiltzaileak errespetatzen ikasiko dute.

...



10


ZEIN LIBURU

Istorio eta irudi batzuk besteak baino atseginagoak egiten zaizkie haurrei. Komenigarria da, beraz, gure seme-alabak atseginago zein

dituen ohartzea. Zenbait gai gogoko egiten zaizkie hurrei, esaterako: haurraren jokabide bera duen animalia batek bizi izandako istoriotxoak, protagonistek bere beldurrei aurre egitea lortzen dutenekoak, edota esan eta egin ezin diren gauzak umoretsu agertzen direnakoak.

Ipuin zaharretan agertu ohi diren gertaera ankerrengatik kezkatu egiten dira batzuetan gurasoak, otsoak Txanogorritxo jaten duenean bezala, adibidez. Zenbait gertakizunek urduritasuna eragiten diete haur batzuei, baina kontatu ahala atsekabea poz iturri bilakatzen zaie protagonistak irabaztea lortzen duela ikustean. Bere beldurrei aurre egiteko eta beldurra galtzeko aukera ematen diote haurrari sorginek, otsoek eta gaizkileek.





11

GOMENDATUTAKO ZENBAIT IPUIN

Ondoren proposatzen diren ipuin-izenburuak aukeratzekoan, gazteleraz eta euskaraz argitaratuak izan direnak hartu dira, elebitan irakurri ahal izateko. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzako dira bereziki, eta Euskadiko Liburutegien Sarean lor daitezke. Liburutegi horien mailegu zerbitzuaz baliatzeko beharrezkoa da bertako txartela eskuratzea. Liburutegien katalogoak ikuskatzeko aukera ere bada Internet bidez, honako helbidean:

- <http://www.euskadi.net/katalogobateratua>

Izenburuak euskaraz:

Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo

Wernwe Holzwath / Wolf Erlbruch

Kalandraka



¿Nola dastatu ilargia?

Michael Grejniec

Kalandraka



Urdaburutarrak

Anthony Browne

Kalandraka



Afrika eta koloreak

Anna Obiols / Subi

Beascoa



¿Hau al da benetako giza bidea?

Jaime Lee Curtis / Laura Conde

Ediciones Serres

•

Nire kaleko jendea

Raimon Carrasco / Cristina Losantos

La Galera

•

Nire katua, munduko kaikuena

Gilles Bachelet

RBA

•

Ni naiz indartsuena

Mario Ramos

Corimbo

•

Hamar oilo gara

Sylvia Dupuis

Edelvives



Otsoa dator!

Émile Jadoul

Edelvives



Gabon hartzatxo

Donatella Bazzucchi

Kalandraka



Tomaxitaren etxe koxkorra

Phyllis Root /Delphine Durand

Edelvives




Pigmeo txikia

Cyril Hahn

Edelvives





12

WEB GIDA

- <http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua>
- <http://www.planlectura.es/>
- <http://www.galtzagorri.org/>
- <http://www.fundaciongsr.es/>
- <http://www.sol-e.com/>



